Hautaketa prozesuak: NORTASUNARI BURUZKO TESTAK



2024ko urria

Telefonoa: 848 42 45 00
orientacion@navarra.es
https://www.navarra.es/eu/enplegua

SERVICIO NAVARRO DE EMPLEO
NAFAR LANSARE


NORTASUNARI BURUZKO TESTAK

Edukia

1. Hautaketa-prozesua 2
2. Hautaketa-prozesu batean ohikoenak diren probak 3
3. Nortasun-galdetegiak 4
   - 3.1 Nortasun-galdetegiak betetzeko aholkuak 4
   - 3.2 Nortasunari buruzko galdetegietako galderen adibideak 6
4. Test proiektiboak 7
   - 4.1 Proba proiektiboei arrakastaz aurre egiteko aholkuak 8
   - 4.2 Test proiektiboen eredu batzuk 9

1. Hautaketa-prozesua

Hautaketa-prozesuaren bidez, erakunde edo enpresa errekrutatzaile edo hautatzaile batek, langileak kontratatu behar dituenean, eskakizunak zehazten ditu, enplegu eskaintzak zabaldu eta **hautaketa-probak ezartzen ditu.** Proba horiek egiten dira aurkezten direnen artean pertsonarik egokiena hautatzeko.



2. Nortasun-probak

Nortasuna deitzen zaio **ezaugarri multzo** bati, pertsonen emozioak, pentsamenduak, jokabideak eta egokitzeko erak, gutxi-asko, modu egonkorrean definitzen dituena. Azken batean, **pertsona bakoitzaren pentsatzeko, izateko eta sentitzeko era** da.

Nortasuna, berez, ezin da "neurtu", baina kontuan har daitezke zenbait joera neurgarri, jokabideak garatzen ahal baitituzte.

Hori dela eta, hautaketa-prozesu baten helburua ez da pertsona bat ezagutzea, baizik eta neurtzea pertsona hori zenbateraino egokitzen den konpetentzia pertsonal jakin batzuetara. Konpetentzia horiek aldez aurretik finkatzen dira, lanpostu baterako egokienak direlakoan. Hau da, nortasun-proben bidez neurtuko dugu pertsona nola egokitzen den ezarritako profil profesiografikora.

Nortasun-proba horiek izaten ahal dira proba idatziak, elkarrizketak, talde-dinamikak edo/eta bestelako egoera-probak.

Hemen nortasun-proba idatziak aztertuko ditugu, betiere oinarritzat hartuta proba horiek osotasun baten barnean baloratu behar direla, arestian aipatutako "ahozko" nortasun probekin batera.

Hainbat test mota daude, eta bakoitzak ezaugarri eta ikuspegi bereziak ditu:

☑ Galdera sortak: Ohikoenak dira, eta nortasunaren hainbat alderdiri buruzko galdera itxiak izaten dituzte (bai/ez, egia/gezurra, Likert eskala).

☑ Test proiektiboak: Test horietan, gizabanakoari estimulu anbiguo bat aurkezten zaio (esaterako, tinta-orban bat edo irudi bat), eta interpretatzeko eskatzen zaio. Erantzunak nortasunaren alderdi inkontzienteak ondorioztatzeko aztertzen dira.

3. Nortasun-galdetegiak

Nortasun-galdetegiak zuri buruzko askotariko galderak dira, helburua dutenak hainbat ezaugarri antzematea; besteak beste, egonkortasun emozionala, izaera kanporakoia-barnerakoia, ekimena, lagunartekotasuna, praktikotasuna... Xedea ez da zure nortasuna sakon aztertzea, baizik eta neurtzea nola egokitzen zaizkion zure konpetentziak lanpostu jakin bati.

3.1 Nortasun-galdetegiak betetzeko aholkuak

Nortasun-testak ezin dira prestatu, ez dago erantzun zuzenik edo okerrik, nork bere izaera dauka. Horregatik, egon lasai eta erantzun zintzotasunez.

Hala ere, zenbait aholku eman ditzakegu, probak ongi islatu ditzan zure nortasunaren bereizgarriak:

- Ez pentsatu gehiegi galderen edo esaldien edukiaz, eta ez eman denbora luzea erabakitzeko. Erantzutean, zuretzat ohikoa edo orokorra dena hartu behar duzu kontuan; utzi alde batera egoera partikularrak.
- Proba horietan denbora ez da mugatua izaten, baina beti eskatuko dizute berehala eta modu naturalean erantzuteko.
- **Erantzun zintzoki.** Erantzunak ematean ez pentsatu zer den onena edo interesgarriena lanposturako. Test gehienek eskala bat izaten dute zintzotasun-falta eta motibazioaren distortsioa detektatzeko, eta probaren emaitzak baliogabetzen ahal ditu.
- Saiatu ez ematen zalantza edo joera nagusiak adierazten dituen erantzuna, salbu eta ezinezkoa bazaizu bestelako erantzun bat aukeratzea. Saiatu arriskatzen, eta ez eman erantzun neutrorik (batzuetan, noizean behin...); izan ere, halakoetan profil laua lortzen da eta emaitza desitxuratu daiteke.
- Saia zaitez galderarik ez uzten erantzunik gabe. Baliteke gairen batek zurekin zerikusirik ez izatea. Halakoetan, aukeratu zure izaerari hobekien egokitzen zaion erantzuna.

3.2 Nortasun-galdetegietako galderen adibideak

Jarraian, **nortasun-galdetegietako** ohiko **galderen adibideak erakusten dizkizugu:**

TESTEN ADIBIDEAK

1. adibidea

Esaldi bakoitzak hiru erantzun posible ditu. Horietako bat aukeratu behar da, baina saiatu B aukera ez erantzuten.

Nahiago ditut pertsona mota hauek:

A. Hitz gutxikoak.
B. ¿ ?
C. Lagunak erraz egiten dituztenak.

2. adibidea

Galdera bakoitzak bi esaldi ditu, irakurri behar dira, eta gu geu ongien definitzen gaituena aukeratu.

- *Pertsona langilea naiz*
- *Ez naiz umore aldakorrekoa*

3. adibidea

Zenbait esaldi ematen dira, eta gure pentsatzeko edo aritzeko modua hobekien islatzen duen aukera markatu behar da.

Abiadura handian gidatzen dut: A B C D E

Nahiago ditut pertsona mota hauek:

A - Esaldia guztiz faltsua bada zure kasuan, harekin inola ere ez bazatoz bat.
B - Esaldia askotan faltsua bada, ados ez bazaude.
C - Esaldia egiazkoa bezain faltsua bada, ezin baduzu erabaki, edo neutraltzat jotzen baduzu zure burua, esaten denari dagokionez.
D - Esaldia maiz egia bada, harekin ados bazaude.
E - Esaldia erabat egiazkoa bada, erabat ados bazaude.

4. adibidea

Pentsatu, sentitu edo jokatzeko moduei buruzko esaldiak aurkezten dira, eta gure ohiko izaera hobekien deskribatzen duen erantzuna eman behar da. **Familia da nire ekintza guztien eragilea: 1 2 3 4 5** *Nahiago ditut pertsona hauek:*

5 - Erabat EGIAZKOA niretzat.
4 - Aski EGIA niretzat.
3- Ez EGIAZKOA ez FALTSUA niretzat.
2- Aski FALTSUA niretzat.
1- Erabat FALTSUA niretzat.

5. adibidea

Esaldiak aurkezten dira, eta gure kasuan maizago edo gutxiagotan gertatzen den jokabidea edo gertaera den erabaki behar da. **Mendira ateratzen naizenean euritakoa eramaten dut: A B C D**

Nahiago ditut pertsona hauek:

A - Ia inoiz ez.
B - Batzuetan.
C - Maiz.
D - Ia beti.

4. Test proiektiboak

Nortasunari buruzko galdeketez gain, bada nortasunari buruzko beste test mota bat, **test proiektibo** izenekoa. Halakoetan, **hainbat estimulu** ematen dira (tinta-orbana, irudi bat, kolore bat, esaldi bat...), eta interpretatu behar dira. Horrelako probek zure nortasunari, pentsamenduei, hautemateko moduari, emozioei eta abarrei buruzko informazioa ematen dute.

Test proiektiboak galdetegiak baino gutxiago erabiltzen dira hautaketa-prozesuetan; izan ere, haiek aztertzeak lan zehatza eskatzen du eta, gainera, errekrutatzen duen pertsonak prestakuntza espezifikoa behar du.

4.1 Proba proiektiboei arrakastaz aurre egiteko aholkuak

Horrelako probetan hainbat jarduera eskatzen ahal dizkizute, hala nola:


- **Marrazkiren bat egitea.**
- Era honetako galderak: **"Esadazu zer ikusten duzun" edo "Zer adieraz dezake irudi honek?",** aldi berean, hainbat forma edo orban dituzten irudiak erakusten dizkizutela.
- **Koloreak hautatzea** sorta batean.
- **Esaldiak osatzea**

Inoiz halakorik eskatzen badizute, hobe duzu ez pentsatzea zer neurtu nahi duten, saia zaitez eskatzen dizuten hori egiten edo modu espontaneoan erantzuten.


Uste baduzu lanposturako egokia zarela, ez duzu ezer galtzeko; izan konfiantza ebaluatzailearengan, esperientzia eta ezagutzak baititu.

4.2 Test proiektiboen motak

- **Rorschach-en Testa** Tinta-orbanen testa ere esaten zaio. Hamar orri zuri daude estandarizatuta, erdian orban ia simetrikoa dutela; batzuk tinta beltzez inprimatuta daude, beste batzuk beltzez eta gorriz, eta beste batzuk hainbat kolorez. Agindu jakin batzuk emanen dizkizute: "Esadazu zer ikusten duzun" edo "Zer adieraz dezake irudi honek?".



- **Zuhaitzaren testa:** zuhaitz bat marraztu behar da. Testean zenbait eduki aztertzen dira: enborra, adaburua, adarrak, lurzorua eta beste elementu osagarri batzuk.



- **Pertsona euripean irudikatzearen testa:** pertsona bat euripean marraztu behar da. Test hori baliatuta ebaluatzen ahal da pertsonak estres- edo presio-egoerei nola aurre egiten dien. Interpretazioa xehetasunetan oinarritzen da, adibidez: marrazkiaren gorputz-jarrera, babes-elementuak eta kontrako egoera baten aurrean pertsonaiak duen jarrera.



- **Etxea, zuhaitza eta pertsona irudikatzearen testa:** etxe bat, zuhaitz bat eta pertsona bat marraztu beharko dituzu. Objektuen



xehetasunek eta marrazteko moduak zure barne-munduari, familiako harremanei eta ingurunearekiko dituzun jarrerei buruzko informazioa ematen dute.

- **Lüscher-en koloreen testa:** Test honetan, sorta bateko koloreak hautatzeko eskatuko zaizu, eta zure aukeraketak interpretatzen dira egoera emozionalaren, beharren eta nortasun-ezaugarrien arabera.



- **Esaldi osatugabeen testa:** amaitu beharreko esaldi osatu gabe batzuk emanen dizkizute. Erantzunen bidez ezagutzen ahal dira zure pentsamoldea, emozioak, harremanekiko eta lanarekiko jarrerak, eta itxaropenak.



- Grafologia: idazkeraren bidez nortasuna aztertzen duen teknika da, eta beste teknika batzuen osagarri izan ohi da. Funtsezko 8 alderdi aztertu ohi dira: ordena, tamaina, inklinazioa, norabidea, presioa, lastertasuna, jarraitasuna eta forma. Hautaketan, aurkezpen-gutun bat eskuz idazteko eskatzen ahal dizute, grafologikoki baloratzeko.



Ez saiatu zeure nortasuna aldatzen. Izan zaitez zu zeu zarena!

OHARRAK





Financiado por
la Unión Europea
NextGenerationEU

GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE TRABAJO Y ECONOMÍA SOCIAL

Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia

SERVICIO PÚBLICO DE EMPLEO ESTATAL
SEPE

SISTEMA NACIONAL DE EMPLEO

Centros de Orientación, Emprendimiento, Acompañamiento e Innovación para el Empleo

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

SERVICIO NAVARRO DE EMPLEO
NAFAR LANSARE